itzulpena: Asier Sarasola

Alejandra Pizarnik

Munduko Poesia Kaierak

Alejandra Pizarnik

itzulpena: Asier Sarasola

literatura Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© Alejandra Pizarnik
© itzulpenarena: Asier Sarasola
© edizio honena: Susa

2018ko urria

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

936an Avellanedan (Argentina) jaio zen Alejandra Pizarnik naziengandik ihes egin zuen familia judutar baten abaroan. Errusiatik mudatu berriak ziren bere gurasoak, eta izan zituzten bi alabak —Alejandra zen txikiena— Argentinan jaio baziren ere, Pizarniken poesian aski presente da arroztasun sentipena, inon errotzeko zailtasuna, nonahi atzerritar sentitzearena. Sentimendu hori, baina, geografikoa bainoago existentziala izatera iristen dela esan liteke, ni-aren eta munduaren artean arrakala gaindiezina egongo balitz bezala. Hala, Pizarniken poesia, nitasun indartsu baten aldarrikapena da, lehen pertsonako izenordaina enfasiz adieraztetik hasita (*Kaiola* poeman, adibidez).

Hain justu kaiola nitasun indartsu horren mugatzaile agertzen da maiz bere poesian, tartean *Esnaera* poema durduzagarrian, non guri Artzeren oihartzunak etortzen zaizkigun ezinbestez: “*Kaiola txori bihurtu da / eta hegan joan da*”. Pizarniken irudi topikoa bere izaera moldakaitzak eta heriotzak markatu izan dute, eta halaxe sartu da bere buruaz beste egin zuten idazle emakumezkoen klubean. Urrutira joan gabe, gure bilduman bertan hortxe ditugu Anne Sexton eta Alfonsina Storni. Idazkuntza guda-eremu azal-

tzen da sarri poeta horiengan, gizarteak emakume arau-hausle bati eragiten dion bortxaren isla gisa nolabait, eta Pizarnikengan ere horren zantzuak topatzen ahal ditugu. Ez alferrik dira “absentzia” eta “beldurra” bere kontzeptu markatuenetako bi, eta ez alferrik irakurri dute haren poesia mundu zabaleko emakume ugarik beren errealitatearen irudi izango balitz bezala. Idaztea, hala, buru egitea da halaber: “*Beldurraren aurka idazten dut*”.

Arestian esan bezala, Pizarniken poesiaren ezaugarri nabarmenetakoa da subjektibitatearen analisia. Barne munduarekiko eta inkontzientearekiko kezka, neurri batean bederen, surrealismotik eta Leon Ostrov psikoanalistarengandik zetozkion. Ostrovekin terapia egin zuen urte luzez eta hari dedikatua da lehen aipaturiko *Esnaera*. Ni-aren bilaketa horrekin lotzen dira, orobat, haren poesian topa litezkeen ahots zabalduak: dena, izan zena, izatea amets zuena, oro agertzen zaizkigu txirikordaturik. Eta horrek guztiak eragiten duen erredura, irakurleak ere sentituko duena maiz: “*pertsona zauritua naiz / singularreko lehen pertsona*”.

1960an Parisera joan zen bizitzera. Lau urtez luzatu zuen egonaldia, eta han bizitakoak mugarriak

izan zitzaizkion bere ibilbidean. Hainbat literatura lanetan jardun zuen (edizio lanak, itzulpenak), eta zenbait idazle espainiar eta latinoamerikar handiren adiskide egin zen: Rosa Chacel, Julio Cortazar, Octavio Paz. Parisen egindako itzulpenen artean Antonin Artaud, Aime Cesaire eta Marguerite Duras aipa litezke besteak beste. 1972an suizidatu zen, hogeita hamasei urte besterik ez zituela, baina ordurako poeta aski entzutetsua zen Argentinan. Gerora, eremu hispaniarretik at ere aintzatetsi da XX. mendeko poeta behinenen artean.

Honakoa aukera bikaina dugu Pizarniken lana autoreari buruzko ideia topikoez —depresioa, histeria, arazo psikiatrikoak, suizidioa— erauzirik irakurtzekoa. Obra bizitzaren bidez azaltzea bide errazegia izan ohi bada, emakume idazleen kasuan are gutxiesgarriagoa izaten da, haien balizko bizitza tormentuzkoetan jartzen dugulako arreta —eta juzgu morala—, beren obren balioan bainoago. Bada, hitz egin beza, bere ahotik, Pizarniken poesiak.

BEÑAT SARASOLA

Soilik maitasun bat

Nire maitasuna zabaldu da.
Paraxut perfektua da.
Arnasa botatzearekin klik egiten du
eta bularra neurririk gabe handitzen zaio.
Nire maitasunak ez du orro egiten
ez deiadar
ez erregu
ez barre.
Haren gorputza begi bat da.
Haren azala, mapamundi bat.
Nire hitzek haren izenaren
azken aztarna zulatzen dute.
Nire musuak aingirak dira
eta labain daitezen tematzen da hura.
Nire laztanak, musika jario halako bat
Erromako iturrien gainera.
Inork ezin izan du ihes egin
haren gogo-eremutik.
Ez dago biderik ez tolesik ez intsekturik.
Nire malkoak matxinatu egiten dira,
hain da leuna guztia.

Nire sorkuntza jainkojate bat da,
zurezko gurdi eta guzti.
Une honetan bertan, tintontzia hegaldatu eta
amodioa egiten ari diren eltxo ilara
amaigaberantz bideratu da.
Zorigaiztoko soinua entzun da. Jada ez nago hegan.
Nire maitasuna da zabaldu dena.

Begiak zabalik dituena

sekula izan ez nintzenarekin
ari da jolasean plazan bizitza

eta hemen nago

pentsamendu, egin ezazu
sokasaltoan nire irribarrearekin

eta denek diote hau gertatu da eta hala da

igaro egiten da
igaro egiten da
nire bihotzak
leihoa ireki du

bizitza
hemen nago

nire bizitzak
nire odol bakar eta hotzak minduak
munduarekin egiten du talka

baina bizi naizen nahi dut jakin
baina ez dut hitz egin nahi
heriotzaz
ezta bere esku estrainioez ere

Jatorria

Haizea salbatu beharra dago
Txoriek haizea kiskaltzen dute
naturatik itzuli
eta oinazeak ehuntzen dituen
emakume bakartiaren adatsean
Haizea salbatu beharra dago

Enamoratua

bizi behar goibel honek
bizi beharraren jukutria ezkutu honek
arrastaka harama, alejandra, ez ezan ukatu

gaur ispiluari so egon haiz
eta tristea izan da bakarrik hengoen
argiak orro aireak oles
baina hire maitea ez dun itzuli

bidaliko ditun mezuak egingo dun irri
dardarka hasiko zaizkin eskuak
hire maite hain maitea itzul dadin

ebatsi hinduen sirena zoroa aditzen dun
aparrezko bizarren barkua
non barreak hil ziren
akorduan dun azken besarkada
oi! lainezarik ez
egin barre malko-zapian egin negar karkaila betean
baina itxi itzan aurpegiko ateak
ez dezaten esan gero

heu izan hintzela emakume enamoratu hura

damu zaizkin egunak
erruak datozkin gauez
min ematen din bizitzak hainbeste hainbeste
etsiak hartuta, nora hoa?
etsiak hartuta, besterik ez!

Iluntasunaren esperoan

Ahazten ez den istant hori
hain hutsik, itzalek itzuli ostean
hain hutsik, erlojuek baztertu ostean
Nire samurtasunak adoptatu duen istant gajo hori
biluzik odolik hegalik gabe
behinolako larriminak oroitzeko begirik gabe
kanpandorre izoztuen kantan
galdu ziren biolentzien zukuak biltzeko ezpainik
gabe

Eman iezaiozu babes, arima gabeko neskatila
Ipini iezaiozu zure ilaje suz zipriztindua
Besarka ezazu, beldurrezko estatua ttipi
Erakuts iezaiozu mundu asaldatua, zeure oinetara
Zeure oinetara hiltzen dira enarak
geroaren aurrean beldurrez dardarka
Esan iezaiozu itsasoaren hasperenek
hezetzen dituzten hitzengatik bakarrik
merezi duela bizitzak

Baina istant izerbera ezdeus hori

patuaren leizean kikilduta
Eskurik gabe, ezin esan sekula ezetz
Eskurik gabe, ezin haur hilei
tximeletak eman oparitan

Emily Dickinsonentzako poema

Gauaren beste aldean
bere izena dauka zain,
bere amarruzko bizi nahia,
gauaren beste aldean!

Negar zotin bat dakar haizeak,
hotsek marrazten dute egunsentia.

Berak eternitateaz pentsatzen du.

Kaiola

Kanpoan eguzkia da.
Ez da eguzki bat baizik
baina gizonak hari begiratu ahala
hasten dira kantuan.

Nik ez dakit eguzkiaz.
Nik aingeruaren doinua dakit,
eta azken haizearen
sermoi beroa.
Badakit oihu egiten egunsentira arte
heriotza biluzik nire itzalean
pausatzen denean.

Nik egiten dut negar nire izenaren pean.
Nik astintzen ditut zapiak gauean
eta, errealitate egarriz, barkuek
nirekin dantzatzen dute.
Nik gordetzen ditut iltzeak
nire amets eriei eskarnio egiteko.

Kanpoan eguzkia da.

Ni errautsez janzten naiz.

Festa ezerezean

Nire begietan itxitako haize hegorik gabea
bezalakoa da
heriotzaren deia.
Aingeru bat beste loturarik ez dut izango
eguzkiarekin.
Non da aingerua,
non bere hitza.

Oi, ardoarekin zulatzea izatearen premia leuna.

Dantza geldia

Gauez, mezulariek zuten jakinarazi entzuten ez
dugun hura.
Aritu ziren argiaren uluaren azpian bila.
Gerarazi nahi izan zuten xalotasuna
itotzen ari ziren eskularrudun eskuen aurrerabidea.

Eta, nire odolaren baitan ezkutatu baziren,
nolatan ez noa arrastaka nire samurtasunaren
atzean
hiltzen ari den nire maitearengana?
Zergatik ez noa ihesi
eta nire atzetik ibili labanak hartuta
eta nire burua galdu?

Herio da une ororen bilbea.
Neuk irensten dut sumina aingeru idiota batek
legez,
ezin oroi dezakeena zeruaren kolorea
sasiek hartuta duenez barrua.

Baina haiek eta neuk badakigu
zerua haurtzaro hilaren kolorekoa dela.

Denbora

Olga Orozcori

Nik ez dakit haurtzaroaz
beldur argiz bete bat eta
nire beste hegirantz arrastaka naraman
esku bat baizik.

Nire haurtzaroa,
txori laztanduaren lurrin hura.

Haizearen alaba

Etorri dira.
Inbaditu dute odola.
Luma usaina dute,
gabeziarena,
negarrarena.
Baina zerorrek elikatzen dituzu beldurra
eta bakardadea
desertuan galdutako
bi aberekume balira bezala.

Etorri dira
ametsen sasoiari su ematera.
Adio egitea da zure bizitza.
Estu heltzen duzu ordea
zoroki bihurritzen den sugeak bezala,
soilik bere burua topatzen du
beste inor ez dagoelako.

Zu ari zara negarrez zure negarraren pean,
zuk irekitzen duzu gurarien kutxa
eta aberatsago zara gaua baino.

Baina hainbesteko bakardadea dago
hitzek bere buruaz beste egiten baitute.

Zauri bakarra

Zein piztia sorgortu
dabilkit odolean arrastaka
eta salbu egon nahi luke?

Hona hemen zailena:
kalerik kale ibiltzea
eta zerura edo zorura seinalatzea.

Erbestea

Raul Gustavo Aguirreri

Aingeru naizen jakin behar hau,
ez izateko adinik,
ez biziko naizen heriotzarik,
ez errukirik nire izenarekin,
ezta negar betean alderrai dabiltzan nire hezurrekin
ere.

Nork ez du amodio bat?
Nor ez da laketzen amapola artean?
Nork ez du su bat, heriotza bat,
beldur bat, zer edo zer izugarria,
lumaduna izan arren,
irri artean izan arren?

Eldarnio gaiztoa da itzal bat maitatzea.
Itzala ez da hiltzen.
Eta nire maitasunak
infernuko laba bezala jariatzen dena
bakarrik hartzen du besartean:

logia isil bat,
mamuak erekzio gozoan,
aparrezko gotzainak
eta batez ere aingeruak,
aiztoak bezain ederrak diren aingeruak;
gauez hegaldatu eta
itxaropena suntsitzen dute.

Arte ikusezinak

Zu, kantatzen dituzuna nire heriotza guztiak.
Zu, kantatzen dituzuna
denboraren loari esaten ez dizkiozunak,
esan nolakoa den ezerezaren etxea,
mintzatu hilkutxaz jantzitako hitzez,
nire xaloan bizi diren horiez.

Nire heriotza guztiekin
eskaintzen diot nire burua heriotzari
haurtzaro zatiz
eta eguzkitan inoiz ibili ez diren desio hordiz eskuak beteta,
eta ez dago garaiz baino goizagoko hitzik
heriotzari arrazoia emango dionik,
eta ez dago aurpegi onez hiltzeko moduko jainkorik.

Errautsak

Esanda gaude hitzak,
hitzak, hilak esnatzeko,
hitzak, sua pizteko,
hitzak, horietan eseri
eta irribarre egiteko.

Sortu ditugu sermoiak,
txoriarena eta itsasoarena,
uraren sermoia,
amodioaren sermoia.

Belauniko jarrita
gurtu ditugu esaldi luzeak,
izarraren hasperena adinakoak,
olatuak bezalako esaldiak,
hegodun esaldiak.

Asmatu dizkiegu izen berriak
ardoari eta irriari,
begiradei
eta beren bide izugarriei.

Ni orain bakarrik nago
—diruzale zoroa legez
bere urre piloaren gainean—
eta hitzak jaurtitzen ditut zerurantz,
baina ni bakarrik nago
eta ezin dizkiot maiteari esan
bizigai ditudan hitzak.

Gaua

Ezer gutxi dakit gauari buruz,
hark, ordea, bai omen daki nitaz,
are gehiago, maitekiro antzean laguntzen dit,
bere izarrez babesten kontzientzia.

Agian gaua da bizitza, eta eguzkia heriotza.
Agian gaua da deus ez
eta hari buruzko susmoak, hutsa
eta hura bizi duten izakiak, ezer ez.
Agian, hitzak, hori da guztia
mendetako hutsune mugagabe honetan,
horren oroigarri, arimako zauriak.

Baina gauak ezagutu behar du miseria,
gure odoletik edaten duena, eta gure ideietatik.
Gorrotoa bota behar du gure begietan,
interesatuak eta elkar ez ulertzez beteak direla
jabetuta.

Alabaina, gaua entzuten dut negarrez nire hezurretan.
Alimaleko malkoz eta onetik irtenda,
zer edo zer betiko joan dela garrasika.

Iritsiko da eguna berriz ere izango garena.

Deus ez

Haizea azkentzen da nire zaurian.
Nire odola nork emango, gaua eskean dabil.

Sorburua

Handiegia zen argia
izan nintzen haurrarentzat.
Baina, nork eman behar dit inoiz erabili ez den
erantzuna?
Hitzen bat, haizeaz babes nazan,
egia txikiren bat, zertan bermatu izan dezadan
neronen bizitzari ekiteko,
esaldiren bat, nirea bakarrik,
gauero besarka dezadan,
nire burua ikusiko dudana,
nire bizitza biziko dudana.

Baina ez. Nire haurtzaroak,
kanpai hilek nindutenean
iragarri,
hotzera haizatu ninduen
haize hezigaitza bakarrik uler dezake.

Doinu zahar bat soilik,
urrezko haurrak dituen zer edo zer, larru berdezko hegoak dituena,
beroa, itsasoak hainbeste dakiena,
dardarka ari dena nire odolean,
berritzen didana beste sasoi batzuetako nekea.

Negarrean ere jainko izateko erabakia soilik.

Gabezia

Nik ez dakit txoriez,
ez zait ezaguna suaren historia.
Baina nago nire bakardadeak hegoak izan beharko
lituzkeela.

Esnaera

Leon Ostrovi

Jauna
Kaiola txori bihurtu da
eta hegan joan da
eta bihotza zoratu zait
uluka ari zaio heriotzari
eta haizearen atzean irri egiten die
nire eldarnioei

Zer egin behar dut beldurrarekin
Zer egin behar dut beldurrarekin

Ez du jada argiak dantzatzen nire irrian
ezta urtaroek usorik erretzen ere nire ideietan
Eskuak soildu egin zaizkit
eta alde egin dute heriotzak
hilei bizitzen irakasten dien lekura

Jauna
Aireak naizenari erasaten dio
Airearen atzean munstroak daude
nire odoletik edaten ari dira

Hondamena da
Hutsik ez dagoen ezerezaren orena da
Ezpainetan giltzarrapoa jartzeko unea
kondenatuak garrasika aditzekoa
nire izenetako bakoitza
ezerezean urkatuta mirestekoa

Jauna
hogei urte ditut

Nire begiek ere hogei urte dute
eta halere ez diote ezer

Jauna
Bizitza osotu dut istant batean
Azkenburuko inozentziak lehertu zuen
Orain da sekula ez edo inoiz ez gehiago
edo behinola bazen baino ez

Zer dela eta ez dut neure buruaz beste egiten
mirailaren aurrean
desagertu eta ostera azaldu itsasoan
barku handi bat argiak piztuta
dudala zain?

Zer dela eta ez ditut zainak erauzi
eta haiekin eskailera bat egin
gauaren beste aldera ihesi joateko?

Hasiera erditu da amaiaz
Bere horretan iraungo du denak
Irribarre higatuak
Interes interesatua
Galderak harriz harri
Amodioa antzeratzen duten keinuak
Bere horretan iraungo du denak

Baina besoak mundua besarkatzearekin tematu
zaizkit
oraindik ez die inork esan
jada beranduegi dela

Jauna
bota itzazu nire odolaren hilkutxak

Haurtzaroa gogoan dut
agurea nintzenean
Loreak hiltzen ziren nire eskuetan
poz beteko dantza basatiak
bihotza hondatzen zielako

Gogoan ditut eguzki goiz beltzak
artean haurra nintzen
alegia atzo
alegia mendeak dira

Jauna
Kaiola txori bihurtu da
eta esperantzak irentsi dizkit

Jauna
Kaiola txori bihurtu da
Zer egin behar dut beldurrarekin

Dianaren arbola

1.

Jauzia egina naiz nigandik egunsentira.
Gorputza utzia naiz argiaren alboan.
Eta kantatua naiz jaio denaren tristezia.

2.

Hauek dira proposatzen dizkigun bertsioak:
zulo bat, horma bat dardarka...

3.

egarria beste ezer ez
isiltasuna
inor ez inguruan

begiz ibili nirekin, maitea

begiz ibili emakume isilarekin desertuan
edalontzi hutsa daraman bidaiariarekin
eta haren gerizpeko itzalarekin

4

HORI BAI:

Nork ez du gehiago eskua hondoraino murgilduko
neska ahaztuarentzako ordain bila.
Hotzak ordainduko du. Ordainduko
du haizeak. Euriak ordainduko du.
Ordainduko du trumoiak.

Aurorari eta Julio Cortazarri

5.

minutu batez bizi labur
bakar batean begiak zabaltzearren
minutu batez lore txikiak
mutuaren ahoan hitzak legez
garunean dantzan ikustearren

6.

bera biluzi da
bere oroimeneko paradisuan
berak ez daki zer patu beltz datorkien
bere irudipenei
beldur da jakingo ote duen izendatzen
izan ere ez dena

7.

Alkandora sutan egingo du jauzi
izarrik izar
itzalik itzal.
Urruneko herioz hilko da
haizea maite duen emakumea.

8.

Argipeko memoria, espero dudanaren itzala
noraezean dabilen galeria.
Ez da egia etortzekoa denik. Ez da egia etorriko ez
denik.

9.

Gauez distira egiten duten hezur hauexek,
hitz hauexek, harrizko txori baten eztarri bizian
harribitxiak balira bezala,
kolore berde oso maite hauxe,
lila epel hauxe,
bihotz soilik misteriotsu hauxe.

10.

haize ahul bat
aurpegi tolestuz betea
maitatu beharreko objektuak itxuratuz ebakitzen dut

11.

orain
oren errugabe honetan
neroni eta izan nintzena eseri gara
nire begietako atalasean

12.

zetazko neska txikiaren metamorfosi gehiagorik ez
somnanbulu dabil behelainoaren ertzetik
arnasten duen eskua bezala itzarriko da
haizeari begiratzen dion lorea bezala

13.

azaldu mundu honetako hitzekin
nigandik abiatu zen barkuak eraman ninduela

14.

Esaten ez dudan poema,

merezi ez dudana.
Bi izateko beldurra
ispilura bidean:
nigan lo denak
jan eta edaten nau.

15.

Jaio nintzen orduari
uko egitea ments dut.
Etorri berriaren lanbidean
gehiago ez aritzea ments dut.

16.

zerorren etxea egina zara
zerorren txoriak lumaz jantzitakoa zara
haize joka ibilia zara
zerorren hezurrez

bakarrik amaitu duzu
inork hasi ez zuena

17.

Egun batzuetan, urruneko hitz bat nitaz jabetzen da. Horrelako egunetan somnanbulu eta garden antzera ibiltzen naiz. Automata ederrak zenbat kantu, zenbat lilura, zenbat kontu eta auzi bere buruari. Hari zurruneko habia horretan, nire hileta ugarietan dantza eta negar egiten dut niregatik. (Bera, su eman zaion ispilua da, su-meta hotzetan itxarotea, elementu mistiko bat, bakarrik hazten ari diren izenen larru-jotzea gau zurbilean).

18.

Gauzen isiltasunaz
badakien poemaren antzera
ni ez ikusteko hitz egiten duzu

19.

nireetan tatuatuta dauzkadan
begiak ikusten ditudanean

20.

dioenez, ez du ezagutzen amodioaren heriotzaren
beldurra
dioenez, amodioaren heriotzaren beldur da
dioenez, amodioa heriotza da beldurra da
dioenez, heriotza beldurra da amodioa da
ez dakiela dio

Laure Batailloni

21.

asko jaiotakoa naiz
eta bi halako sufritutakoa
hango eta hemengo oroimenean

22.

gauez
ispilu bat neska hilarentzat
errautsezko ispilu bat

23.

estoldatik begiratzea
mundua ikusteko modua dateke

iraultza da arrosari so egotea
harik eta begiak haustu arte

24.

(Wolsen marrazki bat)

hari hauek dauzkate lotuta itzalak
eta isiltasunaren kontu ematera behartzen dituzte
hari hauek begirada negarrera lotzen dute

25.

(Goyaren erakusketa)

zulo bat gauean
aingeru batek supituan betea

26.

(Kleeren marrazki bat)

gaueko jauregia
eder galant pizten denean
ispiluak haztatuko ditugu
harik eta gure aurpegiek idoloen antzera kantatu
arte

27.

goizalbak loreak jo eta bat
abandonatu nau ezerezaz eta argi lila batez hordi
gelditasunez eta ziurtasunez hordi

28.

gauzen isiltasuna hariltzen duten izenez
ari zara urruntzen

29.

Hemen, esku bat eztarrian bizi gara. Ezer egin ezin daitekeela bazekiten euriak asmatu eta absentziaren oinazearekin hitzak ehuntzen zituztenek. Horrexek ematen zien beren erreguei lainoarekin maitemindutako eskuen doinu halako bat.

Andre Pieyre de Mandiarguesi

30.

negu miresgarrian
euripeko hegoen eresia
lainozko hatzak uraren oroimenean

31.

Begiak itxi eta ez irekitzea egiten duzu zin. Kanpoan erlojuz eta maltzurkerian ernatutako lorez elikatzen diren bitartean. Baina begiak itxita eta sufrimendu egiatan handiegiaz haztatzen ditugu ispiluak, harik eta hitz ahantziak magiaz bezala entzun arte

32.

Izurri-eremua, lo dagoena
bere gauerdiko bihotza
astiro
jaten ari dena

33.

noizbait
noizbait agian
geratu gabe joango naiz
badoanaren antzera joango naiz

34.

neskato bidaiaria
bere heriotza esplikatzen hil zen

animalia jakintsu nostalgikoek
gorpu beroa bisitatzen zuten

35.

Bizia, nire bizi, utzi zure buruari erortzen, utzi min ematen, nire bizi, utzi suz lotzen, isiltasun xaloz, harri berdez gauaren etxean, utzi zure buruari erortzen eta min ematen, nire bizi.

36.

denboraren kaiolan
lo dagoena bere begi soilei so dago

haizeak ekartzen dio
hostoen erantzun ahula

Alain Glassi

37.

edozer eremu debekatu eta harago
ispilu bat du gure gardentasun tamalak

38.

Oles damutu hau, zelatan, nire poemen bila:
oles honek ukatzen nau, isiltzen nau.

[naufragoek itzalaren atzean]

naufragoek itzalaren atzean
besarkatu zuten bere odolaren isiltasunarekin
buruaz beste egin zuena

gauak ardoa edan zuen
eta dantza egin biluzik lainoaren hezurren artean

[gero]

gero
hiltzen direnean
dantza egingo dut nik
ardoaren argitan
eta gauerdiko amorantean galduta

[hegazti beltzezko bihotza dun bidaiari]

hegazti beltzezko bihotza dun bidaiari
hirea dun gauerdiko bakardadea
hireak ditun hire loan bizi diren animalia jakintsuak
antigoaleko hitzaren zain zeudenan
hireak ditun amodioa eta bere haize-hautsi hotsa

Caroline de Gunderode

En nostalgique je vagabondais
par l'infini
C. DE G.

Haizearekin enamoratuaren eskua
aurrean ez duenaren aurpegia ari da laztantzen.
Haluzinatua, “hegazti-larruzko maleta” hartuta,
bere buruarengandik ihesi doa oroimenean aizto bat
duela.
Ispiluak irentsi zuena
errautsen kutxa batean sartzen da
eta ahanzturaren piztiak otzanduko ditu.

Enrique Molinari

Poema

Zuk aukeratzen duzu non egin
gure isiltasuna esaten dugun zauria.
Zuk bihurtzen duzu nire bizia
purutasun gehiegiko zeremonia.

Zeure egunean

Hartzazu nire aurpegi mutu, eskeko hau.
Hartzazu eskatzen dizudan maitasun hau.
Hartzazu nire baitatik zu zarena.

Suntsipenak

...en besos, no en razones
QUEVEDO

Gorde nazazu hitzen aurkako borrokalditik
eta itzal ezazu nire gorputz elementalaren
sumindura

Amoranteak

lore bat
gauetik urrun ez
nire gorputz mutua
ihintzaren premia delikatuari
ireki zaio

Argigilea

Begiratzen nauzunean
nire begiak giltzak dira,
murruak sekretuak dauzka,
nire beldurrak hitzak, poemak.
Zuk bakarrik bihurtzen duzu nire memoria
bidaiari liluratu,
azkengabeko su.

Aitortza

Zuk isiltzen dituzu nire bihotzeko haizearen
tragedian
hegaka ari diren lilak.
Zuk bihurtu zenuen nire bizitza haurrentzako ipuin,
hondoratzeak eta heriotzak
zeremonia maitagarrien aitzakia direna.

Presentzia

zure ahotsa
gauzak nire begiradatik irten ezinik dauden honetan
haiek ahalgabetzen naute
harrizko ibai batean doan barku bihurtzen
ez bada zure ahotsa
euria bakarrik nire sukarraldi isiletan
zuk askatzen dizkidazu begiak
eta faborez
hitz egin ahal didazu
beti

Ahanztura

gauaren beste hegian
maitasuna posible da

—har nazazu—

eraman nazazu egunero zure oroimenean
hiltzen diren substantzia gozoen artean

Zeu izendatzea

Ez zeure absentziaren poema,
soilik marrazki bat, arrakala bat paretan,
zerbait haizean, zapore mingots bat.

Lanak eta gauak

ene armarria egarrian aitortzeko
amets bakarra aditzera emateko
maitasunean sekula berriz ez bermatzeko

eskaintza izan naiz ni guztiz
nora gabeko ibili bat
gorputzen gauean
otsemea basoan bezala

orbangabeko hitza esateko

Haurtzaroa

Zaldiaren oroimenean
belarra hazten den tenorea.
Haizeak diskurtso xalo bat eman du
lilen omenez,
eta norbait heriotzan sartu da
begiak zabalik
Alice lehenago ikusitakoen lurraldean bezala.

Lehen

Eva Durrelli

baso musikala

txoriek nire begietan
kaiola ttipiak marrazten zituzten

Errautsezko eraztunak

Cristina Campori

Nire ahotsak ari dira kantuan
beraiek kanta ez dezaten,
egunsentian mozal grisa jarri zaienek,
euripeko txori tristez jantzitakoek.

Itxaroan,
lila hautsiaren murmurio halako bat dago.
Eta eguna etortzen denean,
eguzkia eguzki beltz txikitan puskatzen da.
Eta gaua denean, beti,
gabetutako hitz aldra bat
ostatu bila datorkit eztarrira,
beraiek kanta ez dezaten,
zorigaiztokoek, isiltasunaren jabeek.

Goizaldea

Biluzia eguzki gau batekin ametsetan.
Egun basatiak eman ditut etzanda.
Haizeak eta euriak ezabatu ninduten
su bat bezala, horma batean idatzitako poema bat
bezala

Erlojua

Dama ttipi-ttipia
txori bihotz baten barruan bizi da
egunsentiarekin irten da silaba bakarra esatera

EZ

Alferreko mugak

leku bat
ez diot espazio bat
mintzo naiz
                zer batez
mintzo naiz ez denaz
mintzo naiz dakidanaz

ez denbora
baizik eta une guztiak
ez amodioa
ez
        bai
ez

absentziazko leku bat
elkarren arteko hari miserable bat

Festa

Neure zurztasuna zabaldu dut
mahai gainean, mapa bat balitz legez.
Haizeari begira dudan lekura
joateko bidea marraztu dut.
Iristen direnek ez naute topatzen.
Espero ditudanak ez dira existitzen.

Eta edan ditut likore amorratuak
aurpegiak bihur zitezen
aingeru, edalontzi huts.

Gela bakarrik

Pareta zahar honen egia
agertzera ausartzen bazara,
eta bere artesiak, urradurak,
marrazten dituzten aurpegiak, esfingeak,
eskuak, klepsidrak,
ziur etorriko dela
zure egarriarentzako presentzia bat,
agian abian jarriko da
edaten zaituen absentzia.

Otoitzak

Estutu besarkada,
biziagotu zure amorrua,
sortu ezazu irainen eremua
ispilua eta bion artean,
sortu ezazu legendunaren kanta
uste naizenaren eta nire artean.

Desmemoria

Nahiz eta ahotsa (harekin ahaztuz gero,
gainera iraultzen dizkit neroni diren naufragoak)
harri bihurtutako lorategi batean mintzo den

nire bizitza guztiekin oroitzen dut
zergatik ahaztu

Abandonua

Bertan behera utzitako abandonua.
Inor ez da ikusgarri lur gainean.
Odolaren musikak soilik
bermatzen du ostatua
hain leku zabalean.

Formak

ez dakit txoria den edo kaiola
esku hiltzailea
edo neska gazte hila kandela artean
edo amazona arroila ilun handian arnasestuka
edo isila
baina agian iturri baten besteko etorrikoa
agian juglarea
edo dorre garaieneko printzesa

Komunikazioak

Haizeak jaten hasita neuzkan
aurpegia eta eskuak.
Esaten zidaten *aingeru zarpaila*.
Ni zain nengoen.

Memoria

Jorge Gaitan Durani

Beldurrak habia duen
isiltasunezko harpa.
Gauzen ilargizko intziriak
absentzia esan nahi du.

Itxiaren koloreko espazioa.
Norbait, kolpeka, muntatzen ari da
ordua denerako hilkutxa bat,
argia denerako, beste bat.

Etorriko diren egunen itzala

Ivonne A. Bordeloisi

Bihar,
egunsentiarekin jantziko naute errautsez,
beteko didate ahoa lorez.
Ikasiko dut lo egiten
horma baten memorian,
amets egiten duen
animalia baten arnasan.

Bizilekuak

Theodore Fraenkeli

Zenduaren esku zurrunean,
zoroaren oroimenean,
haurraren atsekabean,
godalet bila ari den eskuan,
godalet eskuraezinean,
betiko egarrian.

Gaueko kantaria

Joe, macht die Musik von damals nacht…

Bere soineko urdinaz hil zena ari da kantari. Kantari, herioz beteta, bere hordiaren eguzkitan. Bere kantaren barnean soineko urdin bat dago, zaldi zuri bat dago, bihotz berde bat dago, bere bihotz hilaren taupadak tatuatuta dauzkana. Galbide guztiak aurrean dituela, kantari ari da galdu den neskato bat alboan, eta neskatoa bera da: zorte onaren idunekoa. Eta ezpainetako laino berdea eta begietako hotz grisa gorabehera, bere ahotsak egarriaren eta godaletaren bila ari den eskuarean arteko distantzia higatzen du. Bera kantari ari da.

Olga Orozcori

Bertigoak edo amaitzen ari den zerbaiten kontenplazioa

Lila hau hostogabetzen ari da.
Dagoen horretan jausi
eta bere antigoaleko itzala ezkutatzen du.
Horrelakoez hilko naiz.

Linterna isila

Ez daudenek putz egiten dute eta gau lodia dago. Gauak zenduaren betazalen kolorea du.

Gau osoan egiten dut gaua. Gau osoa ematen dut idazten. Hitzez hitz idazten dut gaua nik.

Nuit de coeur

Udazkena, murru urdinkaran: izan zaitez ttipi hilen babes.

Gauero, garrasi baten iraunaldian, itzal berri bat dator. Bakarka ari da dantzan bere kasako neska misteriotsua. Bera eta biok beldurrak gaude, animalia oso gaztea lehen ehiza gauean bezala.

Neguko ipuina

Haizearen argia pinudian barrena, ulertzen al ditut tristezia goriko zeinu horiek?

Urkatua zintzilika dago gurutze lila batez markatutako zuhaitzetik.

Harik eta nire ametsetik irtetea eta nire etxean sartzea lortu zuen arte, leihotik, gauerdiko haizea gaizkide.

Isiltasuna menderatzeko zatiak

I

Atsekabez kantatzen dute lengoaiaren ahalek, dama bakarti horiek, urrutian entzuten dudan nire ahotsaren bidez. Eta urrun, harea beltzean, neska ttipi bat antigoaleko musikaz beteta datza. Non da benetako heriotza? Goiargia bilatu dut nire argitasun gabeziaren argitan. Lore sortak memorian azkentzen dira. Etzanda dagoen hark nigan du habia eta otseme maskara bat darama. Gehiago ezin eta garrak arren eskatu zituenak, eta suak hartu gintuen.

II

Lengoaiaren etxeko teilatua airean ateratzean eta hitzek babesik ematen ez dutenean, orduan hitz egiten dut nik.

Gorrizko damak maskaren barruan galdu ziren, baina itzuliko dira lore artean negar egitera.

Heriotza ez da mutua. Aditzen dut lutozkoen kantua isiltasunaren zirrikituak zigilatzen. Aditzen dut zure lantu gozoa nire isiltasun grisa loratzen.

III

Heriotzak itzuli dio isiltasunari lehengo ospe liluragarria. Eta nik ez dut nire poema esango eta nik esan behar dut. Baita poemak (orain, hemen) zentzurik ez badu ere, xederik ez badu ere.

Isiltasuna urrezkoa den ametsa

Neguko zakurra hozka ari zait irribarrean. Zubian gertatu zen. Biluzik nengoen eta loredun kapela nuen eta nire zerraldo halaber biluzia arrastaka neraman eta lore zimeldun kapela zuen.

Amodio asko izandakoa naiz —esan nuen—, baina amodioetan ederrena ispiluekiko amodioa izan nuen.

Erreskatea

Beti ibaiaren beste hegiko lorategi bera. Arimak urrun dagoen galdetuz gero, honela erantzungo zaio: ibaiaren beste hegian, honetan ez, beste horretan.

Octavio Pazi

Egotea

Zelatan ari zara gela honetatik
bertako itzaletan beldurgarriena zurea den arren

Hemen ez dago isiltasunik
entzungor egiten diezun esaldiak baizik

Zeinuak hormetan
urruntasun ederraren kontakizun

(Egin ahalegina ez nadin hil
zu berriro ikusi gabe)

Musikaren promesak

Murru zuri baten ostean ortzadarraren aniztasuna. Panpina bere kaiolan dago, udazkena egiten ari da. Eskaintzen piztuera da. Lorategi sortu berri bat, negar-hots bat musikaren ostean. Eta entzuten ahal da beti, hartara, ez du inork adituko jaiotzaren mugimendua, eskaintzen mimika, neroni naizen horren hitzaldia, ni ere banaizen isilari lotuta dagoen horrena. Eta niretik ez dadila geratu sartzea eskatu eta baimena jaso zuenaren bozkarioa baizik. Musika da, heriotza da, horixe esan nahi nuen basoaren koloreak beste ziren denetariko gauetan.

Berehala behar du

Eta moila grisa eta etxe gorriak Eta hala ere ez da bakardadea Eta begiek lauki beltz bat ikusten dute, erdian lila koloreko musikazko zirkulu bat duena Eta delizien lorategia lorategietatik kanpora baino ez da posible Eta bakardadea berau esan ezin izatea da Eta moila grisa eta etxe gorriak.

Jarraitasuna

Ez izendatu gauzak bere izenez. Gauzek horzdun ertzak dituzte. Baina nork egin dezake hitz begiz beteriko logela batean. Nork hozka, paperezko aho batez. Etorri datozen izenak, itzal maskaradunak. Senda nazazu hutsuneaz —esan nuen. (Argiak bere burua maitatzen zuen nire iluntasunean. Ez zegoela jakin nuen, nire buruari aditu nionean: ni naiz). Senda nazazu —esan nuen.

Ura harriari bezala

aspaldiko bilaka aritze horren bila itzuli denari
gainera datorkio gaua ura harriari bezala
airea txoriari bezala
maitatzean gorputzak elkarri bezala

Ispiluaren bideak

I

Eta oroz gain, inozentziaz begiratzea. Ezer gertatuko ez balitz bezala, hala baita benetan.

II

Baina zuri begira nahi dut egon zure aurpegia nire beldurretik urruntzen den arte, txoria gauaren hegi zorrotzetik nola.

III

Euriak supituan ezabatutako murru oso zaharreko klarion arrosazko neskatila bezala.

IV

Lore bat irekitzen denean bezala, ez daukan bihotza argitara ekarrita.

V

Nire gorputzaren eta ahotsaren keinu guztiak, neroni izan nadin oparia, haizeak atarian abandonatu duen lore sorta.

VI

Estali ezazu zure aurpegiaren oroitza izango zarenaren mozorroaz, eta ikaratu izan zinen neskatila.

VII

Bion gaua desegin da lainoarekin. Jaki hotzen sasoia da.

VIII

Eta egarria, nire oroimena egarriarena da, behean ni, hondoan, putzuan, edaten ari nintzen, akordatzen naiz.

IX

Erori animalia zauritua bezala errebelazioena behar zuen lekuan.

X

Garrantzirik ez balu bezala. Ezerk ere ez. Ahoa josita. Betazalak josita. Ahaztu zait. Barruan, haizea. Dena itxita eta haizea barruan.

XI

Isiltasunaren eguzki beltzera ziren urreztatzen hitzak.

XII

Baina isiltasuna benetakoa da. Horregatik idazten dut. Bakarrik nago eta idatzi egiten dut. Ez, ez nago bakarrik. Bada hemen norbait dardarka.

XIII

Eguzkia nahiz *ilargia* eta *izarra* esanda ere, gertatzen zaizkidan kontuez ari naiz.

Eta zer zen nahi nuena?

Nahi nuen isiltasun perfektu bat.

Horregatik hitz egiten dut.

XIV

Gaua otso marruaren formakoa da.

XV

Gozamena da aurrez sumatutako irudian galtzea. Ni jaiki nintzen nire hilotzetik, ni joan nintzen naizen honen bila. Arlotea ni, joana naiz haizean den herrian lo dagoen harengana.

XVI

Azkenik gabe erortzera erortzen naiz azkenik gabe inor zain izan ez nuen lekuan itxaroten neukanari begiratzean nire burua beste ezer ez bainuen ikusi.

XVII

Zer edo zer isildu egin zen. Nire azken hitza *ni* izan zen baina egunsenti argiz beteaz ari nintzen.

XVIII

Lore horiz zipriztindutako lur urdinezko zirkulu bat. Ura dardarka ari da haizez betea.

XIX

Egunsenti itsugarria, txori horiak goizean. Esku batek ilunpea askatzen du, esku batek iletik arrastaka darama ispilua behin eta berriz zeharkatzen duen emakume itoa. Itzuli behar naiz gorputzaren oroimenera, itzuli beharra daukat nire doluzko hezurretara, ulertu beharra nire ahotsak dioena.

Cold in Hand Blues

eta zer da esan behar duzuna
zer edo zer beste ezer ez dut esango
eta zer da egin behar duzuna
lengoaia erabiliko dut ezkutatzeko
eta zergatik
beldurrak nago

Jatorrizko begiak

Beldurrak ipuinik eta poemarik esaten ez duen lekuan, ez du sortzen beldurrezko zein loriazko irudirik.

Gris hutsa da nire izena, nire izenordaina.

Ezagun dut beldurren sorta eta naizen ezezagunera, nire burutik arroztura daraman haitzartean astiro abesteko era hori.

Beldurraren aurka idazten dut. Nire arnasan bizi den erpedun haizearen aurka.

Eta goizez zure burua hilik topatzeko (eta irudi gehiagorik ez egoteko) beldurrak zaudenean: isilik ulertzen duzu, isilik zaude egonean, horrela doaz urteak, horrela joan zen alaitasun basa eder hura.

Infernu musikala

Eguzkiekin jotzen dute

Ezerk ere ez du egiten bat bertan ezerekin

Eta hainbeste animalia hil dago nire memoriaren hezur zorrotzen hilerrian

Eta hainbeste bele gisako moja dator arrapaladan nire hankartea miatzera

Hainbeste zati, urratua egiten baitzait

Hizketaldi lizuna

Hitzen ekaia bere onetik airean ateratzea

Bere baitara aske

Bere baitan, hondora

Hitza desio

Gaua, gaua berriz ere, ilunaren jakintza bikaina, herioren ukitu epela, estasi une bat niretzat, lorategi debekatu ororen oinordeko naizen honentzat.

Urratsak eta hotsak lorategiaren ainubean. Barreak hormen barnean. Ez ezazula pentsa bizirik ez daudenik. Halako batean pitzatuko da horma eta arrapaladan irtengo dira izan nintzen haurrak.

Koloretako paperezko ume jasa bat da. Hitz egiten al dute koloreek? Hitz egiten paperezko irudiek? Urre kolorekoek soilik hitz egiten dute eta horietako bat ere ez dago berton.

Elkarrengana datozen, batzen diren murruen artean nabil. Gau osoan, egunsentira arte, salmodia bera kantatzen: *Etorri ez bazen, etorri ez zelako da.* Galdera egiten dut. Nori? Galdetu egin duela dio, nori galdetu dion jakin nahi duela. Zuk jada ez duzu inorekin hitz egiten. Besterritarra hiltzearen hiltzez

hil beharrean da. Hilurren daudenak bestela mintzo dira.

Debekatuak itxuraldatzeko dohaina xahutu dut (hormen barnean arnasa hartzen sentitzen ditut). Ezin daiteke kontatu nire eguna, nire bidea. Baina bakar-bakarrik horma hauen biluztasuna begiesten du. Ez da lorerik hazten ez haziko miraritik. Ogia eta ura bizi osorako.

Alegrantziaren gorenean deklaratu dut sekula entzun gabeko musika batez. Eta zer? Estasian soilik bizi ahalko banintz, eta poemaren gorputza nire gorputzarekin egin, esaldi bakoitza nire egunekin eta asteekin erreskatatu, esaldi bakoitzeko letra bakoitza biziaren zeremoniatan sakrifikatu ahala poemari nire hatsa eman.

Desioa hitz

Iluntasunaren testura espektral hau, melodia hau hezurretan, askotariko isiltasunen hats hau, behetik behera joate hau, galeria ilun hau, bai iluna, hondoratu gabeko hondoratze hau.

Zer ari naiz esaten? Ilun dago eta sartu asmo dut. Ez dakit zer gehiago esan. (Esatea ez da nahi dudana, sartzea baizik). Hezurretako oinazea, palakadaz hautsitako hizkuntza, gutxinaka berreraikitzea irrealtasunaren diagrama.

Ondasunik ez dut (hori ziur; ziurtasun bat azkenean). Beraz, melodia bat, melodia minduria da, argi lila bat, hartzaile gabeko mehatxu bat. Melodia ikusten ari naiz. Argi laranjakara bat da. Zure begiradarik gabe ez dut jakingo bizitzen, hori ere ziurra da. Piztu eta berpiztu egiten zaitut. Eta esan zidan haizera irten nendila, atez ate galde nezala bertan ote zegoen.

Biluzik noa kandela bat eskuan; gaztelu hotz, delizien lorategi. Bakardadea ez da moilan eseri eta itsasoari nahikeriaz begiratzea. Bakardadea berau esan ezin izatea da paisaia baten sinonimo bihurtzeko ezintasunagatik eta, aurpegirik jarri ezin zaionez, inguratu ezin daitekeelako. Bakardadea nire esaldien melodia hautsi hau litzateke.

Izenak eta irudiak

Haurtzaro goibelaren ederra, panpina arteko tristezia barkaezina, estatuak, objektu mutuak, nire zoko lizunaren eta bion arteko bakarrizketa bikoitzaren alde daudenak, nire lehen pertsona singularrean hobiratutako piraten altxorra.

Ez da musika besterik espero, eta utzi, utzi traizio era ederregietan dardara egiten duen sufrimenduari hondoa baino hondorago iristen.

Saiatu gara egin ez duguna, irain fantastikoak, erru mamuak, elkarri barkarazten. Lanbroarengatik, ezerengatik ez, itzalengatik pekatu dugu.

Nire itzalaren jabea ohoratu nahi dut: ezerezetik ateratzen ditu izenak eta irudiak.

“Les Chants de Maldoror”en ale batean

Nire soinekoaren azpian sutan zegoen gauerdiko umeak bezalako lore alaiko zelai bat.

Argi ufada bat nire hezurretan, “lur” hitza idazten dudanean. Hitza edo presentzia, eta animalia lurrinduak haren segidan; beste inor ez bezain tristea bera, suizidioa bezain ederra; eta gainean hegan dabilkit, eguzki dinastia bat bezala.

Zeinuak

Guztiak amodioa egiten du isiltasunarekin.

Su bat bezalako isiltasun bat hitzeman zidaten, isiltasunezko etxe bat.

Bat-batean, tenplua zirku bihurtzen da, eta argia, danbor.

Ihesa lilan

Zertarako gabe, nori gabe idatzi beharra zegoen.

Gorputza lanpara piztea bezalako amodio batekin akordatzen da.

Isiltasuna tentazio eta promesa baldin bada.

Beste aldean

Harea erlojuan bezala erortzen da musika musikara.

Triste nago otso haginen gauean.

Musika erortzen da musikara nire ahotsa nire ahotsetara bezala.

Hitz osagilea

Hizkuntzak mundu bat lurpetik noiz aterako zain, isiltasuna eratzen den lekua kantuz ematen ari da baten bat. Geroago ohartuko da haserre egonagatik ez dela itsasoa itsaso. Horregatik hitz bakoitzak esaten duena esaten du, eta gehiago, baita beste zerbait ere.

Ezkutukoak

Hitzak aski ez izateko, heriotzaren bat izan behar da bihotzean.

Hizkuntzaren argiak estaltzen nau musika batek legez, atsekabearen zakurrek haginka egindako irudia, eta negua nigan gora dator, enamoratua horman nola.

Esperoan gehiago ez egotea espero dudanean, nire baitara jausten zara. Orduan, ez naiz barnea baino.

L’Obscurité des eaux

Nire ametsera jausten den uraren hotsa aditzen dut. Ura bezala jausten dira hitzak, ni. Nire begietan nire begien irudia marrazten dut, nire uretan egiten dut igerian, nire esanetan isiltzen naiz. Gau osoa ematen dut esperoan, hizkuntzak nor egingo. Eta nigana datorren haizeaz pentsatzen dut, nigan dirauenaz. Gau osoan ibilia naiz euri ezezagun baten pean. Niri, formaz eta irudipenez betetako isiltasuna eman didate (diozunez). Eta bihozminez korrika zoaz, haizean txori bakarra bezala.

Kanta txikiak

I.

ez nau inork ezagutzen nik hitz egiten dut gaua
ez nau inork ezagutzen nik hitz egiten dut nire
gorputza
ez nau inork ezagutzen nik hitz egiten dut euria
ez nau inork ezagutzen nik hitz egiten ditut hilak

II.

hitzak soilik
haurtzaroarenak
heriotzarenak
gorputzen gauarenak

III.

erdigunea
poema batean
beste poema bat da
erdigunearen erdigunea
absentzia da

absentziaren erdigunean
nire itzala da poemaren
erdigunearen erdigunea

IV.

txori hezurrezko panpina batek
bueltan datozkidan nire hitzen
zakur lurrinduak gidatzen ditu

V.

Jeani

udazkenaren
igarleen
agonia

VI.

pitzadurak murruetan
arao beltzak
esaldi larrutuak
zoritxarreko poemak

XIII.

ideia finko bat
haurrentzako ipuin bat
arrakala bat

eguzkia
animalia ilun izugarria da

ez dago ni baino
ez dago zer esan

XIV.

zer da garen espazio hauxe
ideia finko bat
haurrentzako ipuin bat

agindu berrira arte
ez dugu amodioa kantatuko
ordena berrira arte

XV.

neska ttipi, zain egon zinen, haize grisak
haize berdeak noiz ekarriko

XVIII.

bakarka esaten diren bere kasako hitzak
etorri ez datozen poematan hondora noa
nigan, guztia esaten da itzalarekin
eta itzalak, zein bere doblearekin

Gau honetan,
mundu honetan

Martha Isabel Moiari

gau honetan mundu honetan
ametsaren haurtzaroaren heriotzaren hitzak
sekula ez da hori norberak esan nahi duena
ama hizkuntzak antzutzen du
mintzoa ezagutzarako organoa da
ama hizkuntzak antzututako
poema ororen porrotarena
eta birsorkuntzarako organoa ere bada
berrezagutzarako den bezala
baina ez da berpiztearena
ezetzaren gisako zer edo zerena
maldoror eta bere txakurra dauden nire
horizontearena
eta ezer ere ez da promes
esan daitekeenaren barnean
gezurra esatea bezala delako
(esan daitekeen guztia gezurra da)
gainerakoan, isiltasuna

baina isiltasuna ez da existitzen

ez
hitzek
ez dute amodioa egiten
absentzia egiten dute
ura esan, eta edan egingo dut?
ogia esan, eta jan egingo dut?

gau honetan mundu honetan
aparteko isiltasuna gau honetakoa
arimarekin gertatzen dena da ez dela ikusten
gogoarekin gertatzen dena da ez dela ikusten

izpirituarekin gertatzen dena da ez dela ikusten
nondik dator ikusi ezinaren jukutria hori?
ez dago hitzik ikuskizun

itzalak
biziozko eremu horietan gordetzen da
eromenaren harria
korridore beltzak
guztiak ibili ditut
oi, gera zaitez puska bat gehiago gurekin!

pertsona zauritua naiz
singularreko lehen pertsona

idazten dut iluntasunean aiztoa jasota duena bezala
idazten dut esaten dudana bezala
erabateko zintzotasunak jarraituko luke izaten
ezinezkoa
oi, gera zaitez puska bat gehiago gurekin!

hitzen hondatuek
hizkuntzaren jauregia deshabitatzen dute
ezagutza iztartean
zer egin zenuen sexuaren dohainaz?
oi, nire hilak
jan egin nituen eztarrian trabatu zitzaizkidan
ezin dut gehiago gehiago ezin izateaz

mozorrotutako hitzak
guztia labaintzen da
likidotze beltzera

eta maldororren txakurra
gau honetan mundu honetan

guztia posible denean
salbu eta
poema

hitz egiten dut
jakinda hori ez dela kontua
beti da hori ez dela kontua
oi, lagun nazazu ezinbestekoa ez den poema idazten
balioko ez duena
alferrekoa izateko ere
lagun nazazu hitzak idazten
gau honetan mundu honetan